euskal - oŕia

:-: DEIA :-:

Ona Santoña'ko zigoŕetxean loturik daukagun Idiakez'tar Pantzeska'ren zoritxar negargaŕiak mugituta, Gipuzko Buru Batzaŕa beŕiro abertzaleon auŕean.

Ta ez gaurko onetan gipuzkoar utsei dei egin nairik, Euzkadi osoari begira baizik. Guziok baitakizute Gipuzko Buru Batzaŕak esku artean darabilkin auzia egin ditekela Euzkadi baŕenen mugatu: "euskera" bera baitegu Idiakez'gan espetxeratua.

Zorigaiztoko auzi ura beŕitzeko bide guziak uratu ditu G. B. B.'k. Bere gain zetozkion ordainbeaŕai eranizuteko gauza izango etzala nabaitu aŕen, auŕera ta auŕera jo du beti Idiakez'en auzia epaibide galuŕera jaso arteraño: euskerari zor zaion begirapenagatik.

Idiakez'en auzia, Erkal Eralguntzai Epaitian daukagu gaur. Eta epaibide bururaño alegiñaren alegiñez iritxi ondoren, ona G. B. B. bere kutxa utsean auŕera jaŕaitzeko bideak iriki bear dizkion dirurik arkitzen ez dualako, samindurik.

Aŕetaz oldoztu ondoren, bidekurutzean arki du bere burua:

Batetik, Idiakez'en auzia baztertu, ta Pantzeska, espetxeratu zuten epaileak berak ustegabe ta naigabeko okeŕa egin zutela aitortu ondoren, antxe, zigoŕetxe gogor artan utzi, abeŕiaren kateak gogorarazten dizkigun epaitegi beltz artan abera ziotena oso-osoan bete arte. Bide ori ezin dezake G. B. B.'k iñola ere artu.

Beste bidea, argia da. Bear dan dirua nola edo ala sortu. Ta eŕi osoa biotz bakar biurtuta Santoña'runtz begira ikusirik, ona G. B. B.'ren erabakia:

Iriki bedi abertzale guzietan EUSKERA, ABENDA ta ABERRI aldezko BILKETA bat.

Emaitza bakaŕa, bi eŕealekoa bedi.

Abertzale guziak eman bezate bina eŕealekoa.

Astero-astero G. B. B.'k eŕi guzitako beŕi izan beza, bear aña biltzean BILKETA itxiarazi dezan.

Azkenik izpeŕingiak zen eŕeskadak argitara bitzate, onela Dueso zigoŕetxean daukagun, Idiakez anaiayan oñazpitatu ta lerdekatu nai izan duten izkera kutunari gorasaŕerik egokiena egin dezaiogun.

Idiakez eta euskeragatik.

G. B. B.

Errera-Altza

"NOIZIK BEIN" ADIZKIDEARI. — Poz aundiyakin irakuŕi nuben juan dan ostiraleko EL DIA'ko Euskal oŕi ontan zetoren zure idatziya.

Bertan diyozu ori egin dezula ni poztutziagatik eta indarbeŕitzeagatik. Egiya da ala egin naula, eta eskartzen zaitut zure borondate ona, bañan ez da oŕegatik bakaŕik egin ber dezula lan ori.

Ori baño biaŕagokoa da zuk gerozeago diyozun Euskal-oŕi bikain au apaintzia, eta oŕetarako zuriak bezelako idazkiak mais agertzia. Neriak, zuk dakizun bezela, apaindu biaŕan beste zerbait egiten dute, eta jaŕaitzen ba-det zerbait bidaltzen, ez da nik ezin egin nezakena egiteagatik, baizik Luzear jaunak ziyonez es degulako lotsatu biar euskeraz ez ondo egiteagatik, eta bai euskeraz ez egiteagatik.

Diyozu ez dezula ukatuko al dezakezun laguntza, baña geyegi dala amabostian beingoa, eta beste batzuk egin lezatelakoan uzten dezu; bestiak ere ori esanda bukatuko luteke.

Oŕegatik, bestiak lezatekena alde batera utzita, bidezkoa iduritzen zait egitia zuk aldezuna. Eta aldezun au ez da zuk diyozun bezela, bada zuk daukazun eŕextasunakin euskeraz idazteko, egiten dezuna baño geyago eziñik ez dezulakoan nago.

Nik ez jakiñ eta borondatia det; zuk beriz jakin eta... borondate ori izan zazu.

Itxaro degu ba, nik eta nik bezela beste eŕeratar askok zure idatzi bikañak gustora irakuŕiko lutekenak, izenorde oŕen eskusa alde batera utzita, maixiago zure lantxo oyek ikustia.

Agur adiskide, eta zai gaude.

E. A. B. — Igaz bezela, aurten ere emengo emakumeak egin zuten jostalu partiketa Eusko Etxea ta E. A. B.'ko bazkideen umetxoairi. Baita ere sozketatu edo eŕifatu zituzten zortzi atarka jakiyakin, eta sarituak izan ziranak, zer esanik ez dago oso pozturik geratuak dirala.

Jai polita izan zan, eta umetxo asko izandu ziran beren gurasuak lagunduta. Danak pozik aleriaz beren jostalu ta sariyak erakutsiz.

Bukaerako, Lezo'ko txistulari txikiyak ekitaldi bat egin zuten alaituaz Batzokiyan arkitzen ziranak, eta alaitasunaren artian, igaro zuten aŕatsalde on bat bertaratzeko zoriona izan zutenak.

ANTZERKI JAYAK. — Juan dan larunbatian, Erege egunian, iluntzako 8'tan egin zuten bertako antzezlariyak jaitxo bat, eta oi duten bezela oso ederki.

Antzeztu zuten lenbizi oso polita ta mamitsue dan "Oleskari biyak" bi ataletan. Teatroegile danak oso ondo egon ziran, eta beragatik entzun zituzten txalo ugariak.

Uŕena, "Motxa eŕiyan" bakaŕizketa egin zuan Muguruza'tar Toma gazteak, eta au ere oso txalotua izan zan bere ateraldi paŕegileagatik.

Aspaldiko ontan geldi egon aŕen, ekin diyote lanari gure antzeziari trebeak eta orain jaŕaituko dutelakoan gera, berakin poztuaz Eŕera ta Altza'ko eusko teatro zaliai.

DATOREN IGANDERAKO. — Beŕiz datoŕen igandian, badute eŕeratafak nun aŕatsalde on bat igaro. Antzerki jai bat eratua dago aŕatsaldeko 5'tako.

Ez dira bertakoak egileak, baizik len emen izan ziranian ain ondo egin zuten sanpadrotaŕak. Datorzkigu botatzera "Maitasun ta goŕoto" ta "Negaŕez igaro zan aloca".

[illegible] antzeziari oyen yayotasuna eta jakiñaz ondo "preparatuta" datozela, itxaro degu betia ikustia Batzokiya datoren igandian.

ITANI

DR. PINO Enfermedades nerviosas Aldamar, 34; Tel. 11661

¡¡KATOLIKUA!!

Urte baŕunberako zure diru artuemanak garai ontan zuzendu oldituzu. ¡KATOLIKO IKASTETXETARAKO eman bear dezuna sartu aldezu kontuetan? Esku zabalez erabaki zazu orain dixek emakizun ori, eta gaur, igandez, Goterkiko eliza "guztietan" egingo dan diru bilketan, zure asmoa betetzen asi

Nekazari arazoak

Il onen 6'gaŕenian, eŕege egunian baseŕitaŕentzat Legazpi'tik "Olari"'k ziona irakuŕita ezin egon nik ere gai oŕetzaz zer edo zer idatzi gabe.

Egiya da "Olari"'k ziona. Baseŕitarok, danok ezpada ere askok beintzat bai, zeñek esaten digun eta zeñek ekartzen digun ez dakigula geren izena edo firma ematen degu itz egiten diguna gure alde ari dala iruditzen bazaigu beintzat.

Ez nua Legazpi'ko baseŕitaŕai esatera aguazila ta administradoria jartzeko edo ez jartzeko izena ematiaz ondo edo gaizki egin dutenik. Uŕutitxo nago orko beŕi biar bezela jakiteko.

Baseŕitaŕoi, Legazpin bezela Ernani ta beste eŕietan gertatzen zaigu; eŕian au edo ura bear danean gure iritziaren beŕi ez dala jakin beaŕik izaten. Ez al zaizu iruditzen "Olari" gauz abek negargaŕirik dirala?

Neri beintzat bai. Baseŕitaŕak zaitzale edo guarda beaŕian egon aŕen kalian bost ajola. Aŕotzari geyo guri baño.

Egiya da "Olari"'k diona. Kalian jendia ugaritzen ari da ta len zaitzale bat bear dan tokiyan bi bear orain. ¡Eta baseŕiyetan batez! Badakigu lengo basaŕitxuk daudela. Baita ere badakigu len eta orain baseŕitaŕak berak zaindu bearko ditula bere gauzak egunez eta gabez. ¡Guretzat ez bai dago guardik! Eta kaletaŕak aña edo geyago ordaindu aguazil, gauzai edo sereno, idaziari, banakari edo aministradore, diruzai, alondero ta abar eduki bear badira.

Barkatu "Olari" gauza abek azaltzeko zure idzkiya bitarteko artu badet, baña ni nekazari bezela gure gauzetzaz zerbait azalten danean neer esanayak adierazi bear izaten ditut. Ofenbeste eskubide izango al degu beintzat.

Eta orain "Emakume Abertzale Batza"'ri mila esker nekazariyok abertzale ta eusko langileakin batera artu gaituztelako beraik egin dituzten aur saskitxo edo kanastilatzat jabetzeko bidean jaŕiaz.

Gutaz, nekazariyontzaz, beartzen bazerate agindu kezkarik gabe ta gure esker onaren beŕi ordun jakingo dezute.

Lasarte'ko Eusko Nekazari bat

Jaietan ondo jan eta edan ¿nun?
Butron'go ostatu zarrean
Garate'tar Anizeto
ELGOIBAR
EUSKOTARENTZAT TOKIRIK ONENA

DR. ESNAL
Piel y secretas. · Medicina general
De 9 a 11 y de 3 a 5
SORALUCE, 3 1.º · Telef. 11-244

Mugerza Igokiak
Zabaleta, 12 ta 14
12-763 aruf. · DONOSTIA

Ascensores Muguerza
Gordoniz, 5
11-496 t. BILBAO

Oneak neta merkenak

Andoain

EZKONTZAK. — Il onen 4'an, Lezo'ko Kristo Deunaren baselizan ustartu zan Urkia'tar Pelo, Donosti'tik Tolosa'rako tximist gurdiya eramalea Zizurkil'ko andereño batekin.

—Baita ere egun berean txadon nagusian Lasa'tar Joxe Arze'tar Beatriz'ekin.

—Astelenian, Irazusta'tar Inazio, Laŕea'tar Bizenta'rekin.

—Asteazkenian Uŕutia'tar Joxe, Irulegi'tar Joxepa Antoni'rekin ta Zalakain'dar Joxe, Balerdi'tar Mercedes'ekin. Kibar'tar Eusebi'rekin ta Lezo'ko Gurutz Deunaren baselizan, Rodriguez Luloaga'tar Joxe Manuel, Gorostidi'tar Franzizka'rekin.

Zazpi biko oyeidi opa diotet urte askotarako izan dedila orain artu duten uztaŕi deuna. Zorionak.

Zazpi egun baŕuan zazpi ezkontza izan dira ¡gero diote bizibidea zala dagola!

ZORIONAK. — "Zubi Ondo" idazle askaŕaren bidez jkin degu Amasa (Bilabona)'ko Eusko Gaztedi'ko lendakari izentatu dutelà gure adiskide dan Daŕas'tar Karla jauna.

Artu beza nere zorion aguŕa maitekoŕena adiskide Karla ta orain artu duan ardura (kargua) ondo bete ta orain arte bezin gogoz lana egin Jaungoikua ta Lege zaŕen alde, onela ia abertzaletzen duten Amasa (Bilabona) ko eŕi guztia. Gorantziak Bizenta'ri.

"ARGIA"REN EGUTEGIA. — Artu degu 1934'gaŕen urteko Argia'ren Egutegia. Argazkirik ez du baña bai ikasbide edeŕak berak dakarkinak beŕiere baño edeŕagua ta mamitsugua da, beŕiere baño aŕera edeŕagua egin zayo eŕi onetan ta berdin egingo diotela uste det gañerako eŕietan, beragatik oraindik etxeratu ez badezu erosi lenbailen, gabe geldituko zera aguro ibiltzen ezbazera.

Ez dedila sendi euskaldun bat ere geldítu bera erosi gabe.

Joxe Migel'ek "Auŕera" jatetxian egin zuan bazkariya da aurtengo asmakizuna, sayatu gaitian sariyak irabazi nai baditugu. Badakit banaka batzuek alkar artuta sail bat bialtzekuak diradela bateonbatian asmatuko duten itxaropenarekin.

Ibili bada begiya bizi ta ia sariyak etxeratzen ditugun.

PATXI

E. Vergara
REGALOS BODA
BISUTERIA, NOVEDADES
PLUMAS ESTILOGRAFICAS
EUSKERAZ 'TZ EGITENDA
PLAZA DE LA ALAMEDA
(Frente a la parada de los tranvías)

Emazute bide-berritik

ARIOLA TA EUSKO'RI.

Uztazue aspaldiko irizkideok, utzi abertzaletasun aitzaroa; zuen azken idazki zear antxe bai-zakustet.

Neroni ere, luzaroan gero, leiza zulo oriek baŕena ibilia natzaizute ta euskera etorkizunari buruz zuen kezka beŕi ongi dakit.

Aretxen edeŕagatik ba, "euskerea aitugabe" ikusi nai badezu Aŕiola, "apainki zuk" beŕiz Eusko, eldu gizartera argitarora yo emazute bide-beŕitik.

Beaŕik aitzaro atariratu intzan "SAIOA" arako itzak entzuteko unean: "Dadme una Euzkadi patriota aunque absolutamente erdeldun y aún más ayuda que un diccionario y una gramática la transforma en Euskaleŕi".

Bat-batean kezka ta bildur guziak uxatu ta biotzak kokai itxaropenez beterik bide-beŕiari ekin nion, Euzkadi patriota egiteari alegia.

Zuek leiza sakonean murgilduta nonbait, olakorik entzun ez eta bertan yaŕaiki. Aitzaro azken kondartzat nire burua jotzen eta!

Zulo goibel orietatik zetoŕen zuen oiu latza entzutez bat, garai bateko ene irizkideok argitaratzeko gogo bizia erne zitzaidan barnean. Gure irakasle bati Ernialde'ko leizetan astarka zegoltzala gertatua oroitzean ordea, alako buŕuŕa edo nabaitu ere bai.

Buŕuntzi, estalgtita edo dalakoaren barnean eltzea arkitu. Ezgauz ura bereganatu naiez alegiñean, kirtena puskatu ez diote ba.

Zuek oso-osorik bide-beŕiratu nai nik.

Xomoŕo itsuak ere arkitu omen zituzten; ez berez itsuak luzaroan antxe ilunpean ikusmena galdu.

Zueri olakorik gerta balekizute, argitarora oitu arte neroni izango natzaizute itsu-auŕeko.

Zuen begiak argitaro betea eraman dezatekenean, aŕituko zerate emengo auŕerapenaz. Ez dut esan nai gero, aitzarora biurtuko zeratenik; bide-beŕitik daramakigun abiadaz, lilluratuta geldituko zeratela baizik.

Ara "Euzkadi" ta "EL DIA" artu ta "carnet politico" begira:

Una conferencia en Bermeo. — Del Batzoki Oñatiaŕa.—De Eusko Gaztedija de Mungia. La velada literario musical del día 6. — Laŕaskitu, Junta general. — Otxandiano. Reunión de mendigoxales. — Beŕiatua. Convocatoria. — Zornotza. Junta general de Eusko Gaztedija.

Ori gaurko "Euzkadi"'k. Ia EL DIA'k Notas de Abeŕi Etxea de Tolosa. — Eibar. Para Reyes Magos. — Rentería. E. A. B. por los poxpoliñas.

Ta egunero oŕelaxe. Euzkadi'ko eŕi yatoŕenetatik "convocatoria" "Junta general" "velada literario-musical" eta abaŕen beŕisk datozkigu. Euzkadi patriota egiteari buruz izugaŕizko abiada ez al da ori!

Ara, noizpeinka, aitzarotik argitarora akulatu niñuten itzetan ipiñitako ametsak utseratu naiean edo, adiskide batek esana datorkit gogora.

Alegia, iriandaŕak "politican" burubelaŕi galeic'era, aien mintzoa, baztartuxe euki nonbait eta arenak ia egin dula.

Iriandaŕen alegiñak noski galeic'era pizteko. Etekin gutxi ordea.

Eraso nion Txekoslovakian gertatua azaltzen.

Bi edo iru zaaŕen ezpañetan besterik bizi etzala, iru ikasle abertzalek yaso, ta gaur txekera dala ikastola nagusietan ere yaun eta yabe.

Ez dala olakorik yardetzi zidan. Ori baŕeatu ta idatzi duna, oker dagola.

Txekera pizkunde oñaŕia bi edo iru agure ezpañetan ezezik eŕi ezpañetan yaso zutela ikasle abertzale oriek.

Baña ez etsi, adiskideok. Arako ura ere, aitzaro-miñak yoa bai-duzute. Len aitatutako xomoŕo itsu orietarik izaki ta argitaro betea eraman ezin, oŕa.

Gu, bide burura iritxi arte auŕera, Euzkadi patriota egin arte, ordain saritzat Euzkadi euskaleŕituta yasoko bai degu.

Donosti'n. "SAIOA"

Oldozpen unetxo

ESKALEAK

Edesti susmoak diranetik eskaleen beŕi badegu. Gizaldi guzietan ezagutu dira eskaleak. Edonun arki genezazke.

Gaurko berdiñezak kardabetua dauka ludia. Baña atzera begiratuaz berdiñez ori askoz nabarmenago dakusgu. Oraindik berdintasunera ez gera eldu. Oraindik batzun ogasunak gañezka. Bestetzuk atez-ate eskean...; ¡lotsagaŕi benetan!

¡Eskea! ¡eskalea...! Amaika aldiz gezurtatzen dan izen eta izakera. Bere bizi guzia eskean igaro zuanak eriotz ostean diru mordoxka polita utzi zuala bein baño geigo entzun degu. Bestetzuk orde, eguneko janaria eskean arki braŕean diranak, oiek bai eskale eŕukaŕi.

Eskale bat aŕenka datorkidanean eŕukiz txanpon bat eman oi diot. Baña eskuz-esku txanpona aldatzen dan unetxo ura bai mingaŕi neretzat; eskale gaxoa masal'an jotzen detala iruditzen zait. Gizon-emakume, burusoil, ile zuridun aiton amona askotan, nere auŕean otsein antzo, nere auŕean zakur goseti antzo ogi puskaren zai...

Lotsagaŕi ezezik benaz nardagaŕi gizarte zuzentasuna nai dutenentzat.

Etxez-etxe, atez-ate dabiltzan eskaleak ditun eŕia bai eŕi atzeratua. Zenbat eta eskale geigo ainbat atzeratuago dala esango nuke.

Euzkadi'n eskale euskotar gutxi. Euzkadi, gai oŕetzaz, eŕietan auŕeratunetakoa noski. Baña ori ez da aski. Gizarte legez, kistar legez, Euzkadi'n eskalerik ez da ikusi bear. Nola edo ala aŕenka dabiltzan eskale gaxoai bizibide garbi ta jatoŕagoa eman bear zaie.

Berdintasun zoŕotza arlo saila noski, baña batzun ogasunak alpeŕikako ur antzean gañezka dauden artean... ¡eskalerik ez!

Gizon emakume orok buru makurka gabe, auŕez-auŕe begiratzen gerala bizi bear gera. Elkar begirapenez.

A-BI

Lasarte'tik.

RESFRIADOS
El dolor de cabeza, la congestión del aparato respiratorio y el lagrimeo, se curan rápidamente con
ALGODON FORMAN
Precio: UNA peseta

Material Sanitario
Inmenso surtido de Bañeras, Lavabos, Inodoros, Fregaderas de grés, mármol, pizarra y mármol comprimido. Lavaderos. Grandes existencias de azulejos blancos y de color para cuartos de baño y cocinas.
TELEFONO 1-21-27
CALLE SAN FRANCISCO, 17
COOPERATIVA PATRONAL DE CONSUMO DE MATERIALES DE CONSTRUCCION, S. A.

PONSOL S. L.
Sombreros y boinas
FABRICA, 4
DONOSTIA

Ortik eta emendik

EUZKERE, GURE KUTUNA. — Bai, euzkerea gure kutuna da, ta euzkerari nundik edo andik lagundu al izan ezkeroz laguntzeko beti gertu gaude.

Beragatik, euzkerak emaben ditun oinkada txikeŕenak ere poz pozik ikusten ditugu.

Au aitortu ondoren ba, ezta igarlia izan biar. EL DIA guak eskubetaratutzen danian, lenengo begirakuna "Euskal Oŕia" izenakin argitaltzen dun euzkal oŕialdeixora artezten degula igartzeko. Ta "euzkal oŕi" au ikusten degun baña bikaŕiagua ikusi nai genukela igartzeko ere ezta biar igarlia izatea.

Beste askok, naiz itz ebrdiñakin ez, guk diyogun au bera diyote. Euzkerea maite biar da, euzkere aindartu biar da, euzkerea apaindu ta goraldu biar da, euzkereak nagusi bir du, baña euzkereak auŕerakada gitxi egiten du.

¿Zer ete jazotzen da ba? Edo euzkeraren aldekuak ezkera esertarako gauza, edo aaldu nai degun añe eztegu mate euzkera.

Euzkeratzaz zer iritzi duten galdetzen asi zaitez goitik bera ta alde batetik bestera ta euzkeratzaz gaizki itz egingo dizun iñor gitxi arkituko dezu.

¡Iritzi oyek denak egiskuak dirala? Dakusguna ikusi ta siñisteak lan ematen digu.

Euzkadi'ko erki euzkeldunenan argitaltzen da izpaŕingi au, ta begiratu "Euzkal Oŕiya" zelan darabilkiten.

Atzian tokirik estaguanean erdira, erdiyan estaguanean atzera ta beti erdereak utaik uzten ditun basteŕak betetzen.

Eta jaŕaituko degu esaten euzkerea maite biar dala, euzkerea indartu biar dala, euzkerea apaindu ta goraldu biar dala, euzkereak nagusi biar dula ta abar.

"Artiz'tar Xabier" euskel idazle jatoŕak "Luzear" artezturiko idazki idazki apain batean asmo txalogaŕiyak azaltzen zizkion, da "Luzear" onak ondo baña obekigo ikusiko ziñulakuan nago, baña... noiz ete utziko diyogu bañaka jardute oni?

EUZKO ARAUDIYA. — Euzko Araudiya emango ete diguten askok galdetzen didate, ta erantzuten diyet, nere iritziz bayetz, emango digutela, ez erak emateko iŕikatze ndaudeŕako, guk, eusko eŕiyak lortu dulako baizik.

Garai abetan galdera ori egitea ezta aŕitzekua, baña abertzale askok galdera au egiten digutenian, Euzkadiren zori ona ala zoir txaŕa Araudi ori ematean edo ez ematean ba legoke bezela galdetzen digute, ta onek aŕitzen gaitu.

Euzkadi'ren zori ona ala zori txaŕa España'ko jaun batzuben esku egotea, berez izango litzake zori txaŕena; baña ez, ezta egiya. Euzkadi' ko zori ona ala zori txaŕa eztägo España'ko jaun batzuben esku, euskotaŕen esku baizik. Eztegu au aztu biar: Euzkadi'ko seme zintzuek joka biar dun lez jokatzen ba degu gure Abeŕi maitiaren zori ona lortuko degula. Ostera, gure Abeŕiyaren zori ona lortzeko itxaropena atzeŕitaŕegan jartzen badegu, zorion ori eztegu iñoiz lortuko.

Orain eskaturiko Araudiya ematen ba digute pozez artu bar degu, baña Araudi ori, azkatasun osora irixteko mala bat dala aztu gabe. Ta ematen ezpa digute, ezkera geyegi mindu biar, indarbeŕitu ta auŕera jaŕaitu baizik. Gurekn daukaten zoŕa apurka ordaindu gura ezpa dute ausarditsu ta bulartsu osua aŕapatzera.

"EUZKADI". — Ba genum ikuskin edo pelikula au ikusi naia ta nai ori ostegunean Uŕetxuan bete degu.

Gu lez, beste asko ere ba ziran "Euzkadi" ikusi naian. Beintzat irudibiltegi edo zinea atetaraño beterik arkitzen zan.

Etzitzaigun luze jun "Euzkadi" ikusten igaro genun astiya. Izan ere, ainbat gauz eder ikusi bai genun; da neri ete, etzayo atzegin besaulki batean ixeri ta bere Abeŕiyaren edertasunak ikustea?

Ikuskin au egin dutela ta Gipuzko Buru Batzaŕa'tzaz itz goralgaŕi ugari entzun ginuzen. Artu bitzate gure zorionak ere.

Aŕi Gotzon



desechad los abrigos excesivos...

el mal tiempo, los cambios bruscos de temperatura, la humedad, las atmósferas viciadas, son las causas de molestos y peligrosos resfriados que en la mayoría de los casos degeneran en grippe, catarros, tos persistente, etc., etc.

Sus efectos se dejan sentir en nuestro organismo una vez han pasado por nuestra garganta los microbios perniciosos que abundan en el aire que respiramos; es pues en la garganta donde debemos actuar colocando un verdadero filtro depurador de dichos microbios y ello sólo quedará conseguido dejando disolver algunas GABA en nuestra boca en todo momento peligroso.

No lo olvide usted, GABA es el verdadero y mejor abrigo de su garganta para defenderse del mal tiempo y cambios bruscos de temperatura

Caja pequeña 60 céntimos
Caja mediana UNA peseta
Caja grande 2'45

Gaba

Contra la tos, catarros, grippe: GABA, siempre es lo mejor